

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ikasturte honetan 70.000 euro jarriko dira etxeko hezkuntza-arretako programarako

Medikuaren aginduz etxean denbora luzez egon behar duten ikasleentzat da, derrigorrezko hezkuntzakoentzat

Asteazkena, 2018.eko irailak 19

Nafarroako Gobernuak, 2018-2019 ikasturterako, etxeko hezkuntza-arretako programaren laguntza-deialdia banan-banako ebaluazio-erregimenean izapidetzeko baimena ematen duen erabakia hartu du gaurko bilkuran; horretarako, gehienez 70.000 euro jarriko ditu. Plana derrigorrezko hezkuntzako ikasleentzat da; hau da, medikuaren aginduz etxean eriondo denbora luzez egon behar dutenentzat. Era horretan, funts publikoekin babestutako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei emango die hezkuntza-laguntza.

Laguntzen deialdia egun gutxi barru egingo da; laguntzak eskuratu ahal izango dituzte 21 egun natural baino gehiagoz edo hilabetetik beherako aldizkako bajak (gutxienez 6 egun jarraitukoak, gutxienez 6 hilabeteko denboraldian) eskatzen dituzten eritasun kronikoak medio ikastetxera joan ezin duten ikasleen gurasoek edo legezko tutoreek.

Programaren funtsezko helburuak honako hauek dira: eri dagoen ikaslearen banako hezkuntza-arreta bermatzea, haren irakaskuntza eta ikaskuntzaren jarraipena ziurtatu eta, era horretan, egoera hori dela-eta gerta daitekeen eskola-desfasea saihestearren; ikasleari bere prestakuntzarekin jarraitzeko beharrezko bitartekoak eta instrumentuak ematea eta ikastetxearekiko deskonexioa prebenitzea; gerta daitekeen isolamendua ere prebenitzea, hezkuntza-komunitatearekin parte hartzeko giroa sortuz.

2017-2018 ikasturtean, guztira 45 ikaslek jaso zuten hezkuntza-arreta: Lehen Hezkuntzako 15 ikaslek (10 mutil eta 5 neska) eta Bigarren Hezkuntzako 30 ikaslek (14 mutil eta 16 neska). Hizkuntza-ereduen arabera, 10 D ereduak ziren (euskara) eta 35 A ereduak (gaztelera euskara irakasgai bezala izanik) eta G ereduak (gaztelera).

Datorren ikasturteari begira, Hezkuntza Departamentuak ikasleen arreta aldatuko da, irakasleen kontratazio-zerrendatan izena emandakoak ardura daitezen ikasle horietaz. Modu horretan, Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Itunean hartutako konpromisoeta